

LANGABEZIA ETA PREKARITATEAREN AURREAN, HERRIA BORROKAN!!!

Estatu mailan ematen ari diren ekintza sozialen arira UZL-k ere borroka honekin bat egiten du. Oraingoan, duela hilabete pasatxo sortu zen 22-M mugimenduarekin atxikitzea erabaki dugu. Horrexegatik, estatu mailan, enplegu bulegoetan aurrera eramango diren protestak direla eta, guk ere Zumarragako Lanbide-SEPE-n mobilizazioak deitzen ditugu. Apirilak 30, asteazkena, goizeko 11:30etatik 12:30etara, ekintza errebindikatibo bat burutuko dugu bertan.

Azken 5 urteotan kapitalismoak ematen ari duen erasoaldi bortitz eta zapaltzaile hau salatu nahi dugu. Langabeziak gora egin du izugarri, lanaren prekaritatea eta langileriaren explotazioa bilatuz. Aldi berean, aldi baterako lanak edota jardunaldi erdikoak izugarri egin dute gora. Baita kontratu gabeko eta eskubiderik gabeko lanpostu prekarioek ere. Eta ezin ahaztu, lan prekarioen ondorioz 2013.urtean, estatu mailan emandako datu onartezinak: Lanpostuetan emandako 540 hildako (hauetatik 55 Hego Euskal Herrian) eta ia 460.000 lan istripu larri.

Langileak ezezik, pentsionistek ere beraien eskubideak urratuak ikusi dituzte. Alde batetik, jubilazio adina etengabe goraka doa. Bestetik pentsioak izoztu eta jeisten ari dira. Gutxi balitz, 3. adineko pertsonen eskubide sozialak murriztuz doaz (zaintza, etxeko laguntzak, zentru gerontologikoen pribatizazioak ...) eta gainera pentsioen pribatizazioa bultzatzen ari dira gobernu neoliberalak (Gasteiz, Madril eta Paris). Honekin, espekulazio finantziarioa bilatu nahi da, herritarren pentsioak apostu hutsean bilakatuz eta hauek gabe geratzeko arriskuak sortuz.

Ezin ahaztu emakumeok jasaten dugun zapalkuntza bikoitza. Estatu heteropatriarkal honek, argi du gurekiko ematen diren diskriminazio eta explotazioak kapitalismoari beharrezko zaizkiola Lanpostu bat aukeratzekoan, emakume izate hutsagatik zailtasun ikaragarriak aurki ditzakegu, lanpostu berdinegatik soldata baxuagoak izatearekin batera. Eta askotan, soldata gabeko zaintza lanetara atxilotzen gaituzte.

Etorkinen egoera ere salagarria da guztiz. Kanpokoak izateagatik lanpostu bat guztiz eskuraezin bihurtu daiteke. Azkeneko urteotan beharrezko hainbat eskubide sozialen deuseztatzeak jasan ditugu. Gainera, etorkinen soldatak, orokorrean, bertakoenak baino baxuagoak dira.

Eta zapalkuntza honen jo puntu zuzen garen beste sektorea gazteona da. Langabezira, lan prekaria, aldi baterako kontratura eta emigrazioa derrigortuak. Adibide moduan, gazteoi (16-29 urte bitarte) Hego Euskal Herrian, 2013ko azken hiruhilekoan egindako kontratuen %95,5 aldi baterako kontratuak izan dira, kontratu gabeko lanak ere izugarri gora eginez. Gainera, 24 urtetik beherakoen langabezia tasa %40 ingurukoa dela ikus dezakegu HEHn.

Guzti honetan, inposatu diguten hezkuntza ereduak, bere papera jokatzen du. Sistema honen mesedetan sortutako robot alineatuak bilatzen ditu, gutxi batzuen nahietara eraikitako hezkuntza ereduak nahi duelarik. Azken aldian gainera, herritar askori hezkuntza eskubidea ukatua izan zaio, ikastea ezinezko bihurtuz, muga ekonomikoak medio.

Beraz, argi ikus daiteke jarraitu beharreko bidea, kapitalismoaren erasoaldi honi aurre egin eta gure alternatibak eraiki. Aberatsak aberatsago, eta behartsuak behartsuago diren garai honetan, non gosea gero eta nabariagoa den Euskal Herrian, argi dago aldaketa bat beharrezkoa dela.

BATU BORROKARA!

U.Z.L.